

Kutxabankek bat egin du 'Basque Ecodesign Center' egitasmoarekin

- **Lehen finantza-erakundea da lankidetzak publikoa eta pribatua sustatzen duen ekonomia zirkularreko egitasmo honetan parte hartzen**
- **Kutxabankek negozio-eredu jasangarria babesten du, bere jarduerak finantzarioak ahalik eta eragin positiboena izan dezan ekonomian, gizartean eta ingurugiroan**

2021eko ekainaren 7an. Kutxabank **lehen finantza erakundea** izan da 'Basque Ecodesign Center' egitasmoarekin bat egiten. Batasun honek, 2011. urteaz geroztik erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak indartzen du ekodiseinuan berrikuntza sustatu eta ezagutza sortzeko, gero euskal ehun-industrialaren eskuetan utzi ahal izateko.

Finantza Erakundeak Basque Ecodesign Center-en helburu nagusi bertsuak ditu euskal ehun ekonomikoan ekonomia zirkularra sustatzeko egitasmoei dagokienean, lehiakortasuna hobetzeko erronkari aurre egin eta ingurugiroan sor litezken eragin kaltegarriak arintzeko.

Hain zuzen ere, Kutxabanken Jasangarritasun Politikak **negozio eredu jasangarria** indartzearen beharra babesten du, bere jardueraren eragin positiboak ekonomian, gizartean eta ingurugiroan txertatzeko gai dena, kapital pribatua inbertsio jasangarrietara bideratuz, eta laguntza emanez bezeroek negozio-eredu jasangarriagoetarako trantsizioa egin dezaten.

Kutxabank jakitun da finantza-alorrak ere zeregin garrantzitsua dula trantsizio energetikoa sustatu eta jarduerak ekonomikoak ingurugiroan sortzen dituen kalteak murrizterakoan. Horregatik, ahalegin berezia egiten ari da finantzazioa deskarbonizazioa erraztu edo energia berriztagarrien erabilera indartzen duten proiektuetara bideratzen. Iaz, esaterako, 1.718 milioi euroko finantzazioa eman zuen energia garbiak sortzeko proiektuak sortzeko.

Gainera, banka Taldea karbono isurietan erabateko neutralitatea lortu zuen bere alorreko lehen enpresa izan zen. Ez hori bakarrik, 2020. urteaz geroztik, ia 12.000 tonako karbono arrasto negatiboa du, bere jarduerarengatik zuzenean sortzen dituen isuriak aise xurgatzen baitituzte jabetzan dauzkan basoek.